


Euskal AEko industria-jarduera % 4,4 jaitsi da 2025eko martxoan

2025eko otsailaren aldean, industria-produkzioa % 1,3 jaitsi da

Eustaten datuen arabera, 2025eko martxoan eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 4,4 txikiagoa izan da.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduerak % 1,3 egin du behera azken hilabete honetan, urtaroen ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunen* ekoizpenak urte arteko portaera positiboa izan du 2025eko martxoan eta produkzioa % 1,1 hazi da sektore osoan. Igoera hori, batez ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* joerak eragin du, horien produkzioa % 1,3 igo baita; *Kontsumo-ondasun iraunkorren* produkzioa, berriz, % 0,3 bakarrik hazi da. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* artean altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa sartzen da, besteak beste. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* artean, berriz, honako hauek daude: elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea.

Ekipo-ondasunen ekoizpena (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautika edo ontzigintza) % 2,2 jaitsi da aurreko urteko martxoaren aldean.

Bitarteko ondasunetan, metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne, ekoizpena % 7,2 jaitsi da urte artean.

Energiaren ekoizpena, azkenik, % 5,0 igo da 2025eko martxoan, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore horretan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Martxo 2025

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
Indize orokorra			
Euskal AE	-4,4	-1,0	-1,3
Araba/Álava	-8,6	-3,3	-4,2
Bizkaia	-4,1	-1,2	-1,1
Gipuzkoa	-2,5	0,5	-0,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	1,1	1,4	-0,9
Kontsumoondasun iraunkorrak	0,3	-6,1	2,0
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	1,3	3,3	-1,6
Ekipo-ondasunak	-2,2	1,1	-0,3
Bitarteko ondasunak	-7,2	-3,6	-2,4
Energia	5,0	-2,9	2,4

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtearen pilotutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2025eko Maiatzaren 7a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025eko martxoan, Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurralde historikoetan. Gipuzkoan % 2,5 jaitsi da ekoizpena, Bizkaian % 4,1 eta Araban % 8,6.

Maila bereziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2025eko martxoan, urte artean, hauek izan dira ekoizpenean igoera izan duten bakarrak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 5,0) eta *Makineria eta tresneria* (% 0,7). Aitzitik, produkzioaren urte arteko beherapen handienak *Metalurgia eta produktu metalikoetan* (% 9,6) eta *Kautxua eta plastikoetan* (% 5,8) izan dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Martxoa 2025

	m / m-12
Elkadura ind., edariak, tabakoa	-5,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-3,7
Kautxua eta plastikoak	-5,8
Metallurgia eta produktu metalikoak	-9,6
Materiala eta tresna elektrikoak	-2,6
Makineria eta tresneria	0,7
Garraio-materiala	-0,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	5,0

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2025eko Maiatzaren 7a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025EKO MARTXOKO BALANTZE METATUA

Urteko lehenengo hiru hilabeteetako metatua, Industria-Produkzioaren Indizea % 1,0 jaitsi da. Martxora arteko ekoizpen metatua % 1,4 igo da *Kontsumo-ondasunetan* eta % 1,1 *Ekipo-ondasunetan*. *Bitarteko ondasunek*, aldiz, bilakaera negatiboa izan dute, produkzioa % 3,6 jaitsi baita aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta. *Energiak* ere % 2,9 egin du behera.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko lehen hiru hilabeteetako metatua balantze positiboarekin itxi da Gipuzkoan ekoizpenaren % 0,5eko igoerarekin. Bizkaian eta Araban, aldiz, ekoizpena % 1,2 eta % 3,3 jaitsi da, hurrenez hurren, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea lagingaren % **84,03**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62